

1. Bidasoako Alardeak: herriaren eta hiriaren arteko eztabaida

Gorka Moreno

(...) Gauza bera egiten dute euskalduntasuna esentziaren ildotik ulertzen duten guztiek ere, alderdi abertzaleetako partaide asko tartean. Multzo honetakoek —erromantikoek zabaldutako volkgeist edo herriaren espiritu hartatik abiatuta— Euskal Herria behin eta betiko zehaztua eta egina gelditu zela uste dute, aspaldi batean noski, Neolitikoa edo, eta xehetasun batzuk hartu zituela orduan —euskara, esate baterako— xehetasun aldaezinak, eta horren inguruan antolatu behar dela gure etorkizuna, Euskal Herri eternal hori munduratu arteko etorkizun onik ez dela egongo. Ordea ideia horiek, apur bat esoterikoak, nahastu besterik ez dute egiten. Izan ere, esentziarik ez dago ilargiaren azpiko munduan, ez dago urtez urte eta mendez mende berdinean irauten duen ezer. Beste modu batera esanda, den dena historikoa da, gizarte honek edo hark sortua; (...)

Nire ustez, nahitaezkoa zaigu eredu erromantikoaren bazterketa gure anakronismoan edo marjinazioan ez erortzearen, hots, lehen mailako balio kulturalekin bizitzeko, eta helburu horrek, praktikan, Euskal Gizartearentzat —sektore, talde, pertsona ezberdinez osatutako gizarte batentzat, alegia— egokia litzatekeen leku berri bat eskatzen du. Leku berri honi, nik, Euskal Hiria deitzen diot, hiria izan baita historian barrena jende desberdinak elkarrekin bizi ahal izateko asmatu eta eraikitako gunea.

Bernardo Atxaga

(Schommer, A. eta Atxaga, B.: *Euskal Herria*, Euskadiko Kutxa, Bilbo, 1998, 50. or.)

Lan honek Bidasoako Alardeak ditu ikerketagai. Azken urteotan emakumeen partaidetzaren inguruko eztabaida dela eta, ezagunak egin dira bai Irungo bai Hondarribiko Alardeak. Horrela bada, gure helburu nagusia Alardeen auzian sakontzea da, eta ez bakarrik sakontzea, eremu eta ezaugarri batzuen argipenean murgiltzea ere ezinbestekoa iruditzen zaigu gatazka honetan benetan jokoan zer dagoen jakin ahal izateko. Orain arte, gai honi buruz dezente idatzi da, baina gehienetan komunikabideetan ateratako artikuluen bitartez izan da; mota horretako lanek muga batzuk dituzte: tamaina, sakontzeko ezintasuna, ikuspegi motzak etab. Horrela izanik, oso interesgarria iruditu zaigu gai honen inguruan liburu bat egitea, eremu honetan horrelako ekarpenen falta somatzen baita. Gure ustez, Alardeen auzia bere osotasunean landu behar da; horretarako, faktore guztiak aztertu behar

dira eta ez soilik agerian gelditzen diren aspektuak. Zentzu horretan, oso egokia iruditu zaigu diziplina arteko gerturatzea sustatzea. Halaber, gure ikerketagaia den Alardeen gatazka hainbat alor eta ikuspegitatik landuko da, horrela lortzen diren aberastasun eta ñabardurak oso interesgarriak izan baitaitezke. Lehenengo artikuluetan gaia testuinguruan kokatzen da, gaiari nolabaiteko sarrera eginez. Horretarako antropologia, historia edota azken urteotako gertakizunak aipatzen dira lehenengo lau kapituluetan. Hurrengo hiru artikuluetan Bidasoako Alardeen azterketa sektoriala egiten da, zenbait alde abiapuntu hartuta: zuzenbidea, arlo politikoa eta komunikabideen papera.

Liburu honen lehenengo kapituluan Margaret Bullen-ek Alardeen azterketa antropologikoa egiten du. Euskal antropologian oraindik jorratu gabeko arloan kokatzen gaitu: tradizioak bermatutako eta emakumeen bazterketan oinarritutako erritualen azterketan. Hori gertatzeko arrazoiak, eta bereziki sakratutzat jotako tradizioaren kontzeptua, aztergai ditu artikuluko honek. Horrela izanik, “euskal matriarkatuak” eta antzeko mitoek duten pisua ere aztertzen da artikuluan. Era berean, Alardeen auziaren eta gaur egungo erlatibismo kulturalaren inguruko gogoeta ere egiten da artikulua azken zatian.

Jarraian, Xabier Kerexetak historia du mintzagai. Emakumeen partaidetza baztertzeko emandako arrazoiaren artean historia inportanteenetako bat izan da. Halaber, Alardearen historiaren jatorria guztiz zabaldua eta hedatuta dago Bidasoan zein beste herri batzuetan. Zentzu horretan, historiaren interpretazio guztiz maltzurra egin da, ideologia jakin batek bere nahiak islatu ditu historiaren berridazketa eginez eta horren bidez babesa eman zaio orainari. Artikulu honetan horren inguruko argibideak ematen dira eta benetako historian sakondu egiten da.

Hirugarren eta laugarren artikuluetan, Mercedes Tranche-k Alardeen bilakaera lantzen du. Batean, emakumeen inguruko gatazka sortu arte, Irungo Alardeak izan duen garapena lantzen du. Era horretan, izan diren gertaera nagusien berri ematen digu, zeinetan lotura bat topa daitekeen, alegia, politikaren eta Alardearen arteko harreman hestua. Artikulu honetan, 1996. urtetik aurrera sortu den gatazka ulertzeko ezinbestekoak diren klabe batzuk ematen zaizkigu. Tranche-ren bigarren artikuluan Irun zein Hondarribiko Alardeetan azken urte hauetan jazotako gorabeherak lantzen dira. Horren inguruan orain arte ez da ezer idatzita egon era sistematizatu batean; beraz, bertan azaltzen diren elementuak —horietako batzuk guztiz ezezagunak— oso baliagarriak dira gatazka honek izan duen bilakaera ondo konprenitzeko. Azken finean, bi artikuluko hauek emakumearen parte-hartzearen inguruko auziaren nondik norakoan berri ematen digute xehetasun eta doitasun handiarekin.

Hurrengo kapituluan Garikoitz Lekuonak azken urte hauetan Irungo zein Hondarribiko Alardeen inguruan kaleratu diren epaien azterketa egiten du. Nahiz eta jurisprudentziako doktrinak dioen emakumeek Alardean soldadu gisa parte

hartzeko eskubidea dutela eta emakumeak herriko festa nagusitik kanpo uzteak tratua bera jasotzeko oinarrizko eskubidea urratzen duela, herri-agintariek onartu eta sustatu dute Alardeak pertsona partikularren talde bik kudeatutako ikuskizun bihurtzea, festaren pribatizazioa agituz. Horri lotuta, epaiek izugarritzko eragina izan dute alde bakoitzak hartu duen estrategiaren baitan. Horrela, bada, artikulua honek epaien berri ematen digu eta gatazkan izan diren zenbait mugimendu hobeto eza-gutzeko tresna ahalbidetzen digu.

Gorka Moreno-k idatzitako artikuluan Irun zein Hondarribiko elite politiko lokalen papera aztertzen da. Elite lokal horien jokabidea oso ezkorra izan da Alardearen auziaren konponbidean eta gatazkaren “usteltze-prozesuan” oso garrantzi handia izan dute. Bestetik, gatazkak konpontzeko teoria abiapuntutzat hartuta, Alardeen inguruko ikerketa egiten da, bertan azaltzen diren arazo eta aukera nagusienak azpimarratuz. Zentzu horretan, elite politikoek izandako jarrerak guztiz baldintzatu dituzte prozesu eta dinamika guztiak.

Azkenik, Edurne Irigoienek Alardeen eta komunikabideen arteko azterketa egiten du. Diskurtso-azterketan oinarritutako artikulua honek egunkari batzuek auziaren aurrean izan duten jarrera lantzen du. Horrela izanik, *Diario Vasco*, *Egin-Gara*, *El País* eta *El Mundo* egunkariak aztertuta, Alardeekiko dituzten ikuspuntuak oso ezberdinak izan dira. Berria lantzeko mementoan diferentzia nabariak topa daitezke batzuen eta besteen artean.

Artikuluek gain, irudi grafikoak ere sartu dira. Askotan esaten den bezala, irudi batek mila hitzek baino gehiago azal dezake, eta Bidasoako Alardeei dago-kienez, esaldi hau erabat betetzen da. Azken urteotan komunikabideetan ikusi ditugun argazkiak oso adierazgarriak izan dira; horrela, bada, gure asmoa, aukeraketa honetan, argazki esanguratsuak biltzea izan da, artikuluen osagarri izan daitezkeen.

Liburu honen xedea azterketa dibulгатibo izatea da; horregatik, aukeratu da diziplina arteko gerturatzea, hain zuzen ere. Bidasoako biztanle batentzat liburuan agertzen diren zehaztasun eta argipenak oso baliagarriak izan daitezke, sarritan ez-kutaturik gelditzen diren elementu eta ezaugarriak plazaratuko baitira; era berean, bertakoa ez den pertsonarentzat gaia eta gatazka hobeto ulertzeko tresna egokia egin nahi izan dugu, horretarako auzia testuinguruan kokatzeko egokiak izan daitezkeen artikulua eta aipamenak barneratu dira liburu honetan.

Azken helburu dibulгатibo hau kontutan izanik, ikerketaren xehetasunekin jarraitu baino lehen interesgarria izan daiteke Alardearen auzian topa daitezkeen jarrera, eta beraz, identitateak ikustea, era labur eta eskematikoan baldin bada ere. Horren bidez, gatazkaren nondik norakoak hobeto uler daitezke eta, gainera, tes-tuinguru aproposa izan daiteke gaia sakonean eza-gutzeko tresna erabiltzeko.

Ikuspegi hauek aldean tipo idealak izango lirakeke. Errealitatean aniztasun handia dago jarreretan. Tipo ideal hauek *continuum* baten puntako aldeak izango

lirateke. Horrela izanik, Alardea ulertzeko bi jarrera¹ daude: alde batetik tradizionalistak (*betikoak*), emakumeak bakarrik kantinera bezala parte hartzea onartzen dutenak; eta bestetik “berdinzaleak”, emakumearen parte-hartzea kantinera zein soldadu gisa defendatzen dutenak.

1. Jarrera tradizionalista. Talde honen iritziz Alardea aldaezina da emakumearen partaidetzari dagokionez, Bidasoako biztanleriak gehiengoz bestela erabakitzen ez duen bitartean behintzat. Egia eta gehiengoa bateratuta agertzen dira; horrela, beraien diskurtsoan eztabaidarako aukerarik topatzea oso zaila suertatzen da. Gehiengoa emakumearen parte-hartzearen kontrakoa baldin bada, ez dago zer negoziatu.

Tradizionalisten ikuspuntuaren arabera, Alardea ezin da beste era batera egin; aldaketarik balego edozer gauza izango litzateke, baina jada ez benetako Alardea, benetako izaera eta esentzia galduko bailuke: Irungo eta Hondarribiko identitatearen zeinua, eta belaunaldiz belaunaldi aldaketarik gabe igaro den tradizioaren ukapena gertatuko litzakete, eta, beraz, herri horietako identitate osoa zalantzan jarriko litzateke aldaketarik onartzean. Horrela, bada, tradizionalistek “gu” eta “besteak” dikotomia erabiltzen dute tradizionalisten eta berdinzaleen arteko muga ezartzeko. “Gu”, tradizionalistak dira, Alardea benetan maite dutenak, benetan Alardearekin bat egiten dutenak, eta arrazoinamendu hau muturrera eramanda irundar edo hondarribiarrak direnak. Berdinzaleak, aldiz “besteak” dira. Ez dute Alardea maite, aldatu nahi baitute; ez badute Alardea maite ez dira irundar edo hondarribiarrak, ezin dira izan bertakoak. Alardea benetan maite izango balute, ez lukete aldaketarik nahi izango. Beraz, eztabaidagunea “bertakoen” eta “kanpoken” artean kokatzen da.

Bidasoa izanik jokalekua, tradizionalistek ez dute onartzen esparru judizialaren edota komunikabideen esku-hartzea, kanpotik etorritako eragileak baitira. Auzia bertan konpondu behar da, kanpoko esku-hartzerik gabe. Izan ere, Irun eta Hondarribia dira “erabakitzeko esparrua”. Horri lotuta, komunikabideen kontrako iritzia agertzen da tradizionalisten artean: komunikabideak manipulazailak dira, oso era hutsal eta distorsionatu batean erakusten baitituzte Alardeetako gertakariak mundu osora. Politizazioaren ideia ere garrantzitsua da eta oso zabalduta dago, talde honentzat berdinzaleek Batasuna² alderdiak jaia suntsitzeko estrategiaren alde egiten lukete. Halaber, tradizionalistentzat, politizazioa soilik berdinzaleen eskutik

1. Talde hauek izendatzeko askotan zaila izaten da izen egokirik bilatzea. Alde batetik, terminologia zehatzik ez da existitzen, eta bestetik, sarritan iraingarriak izaten diren terminoak erabiltzen dira. Lan honetan “tradizionalista” hitza erabiliko da emakumearen parte-hartzearen kontrakoei buruz hitzegiteko, eta “berdinzale” emakumearen parte-hartzearen aldekoak izendatzeko.

2. Zentzu honetan oso esanguratsua da hain ohikoak diren eta tradizionalistek hainbeste erabiltzen dituzten *konstituzionalista* edota *espainolista* irainak. Batasuna alderdikoak dira Alarde berdinzalearen alde egiten dutenak, baina era berean konstituzionalistak eta espainolistak. Adibide honek oso garbi erakusten du Alardearen inguruko eztabaidaren parametroak non kokatu diren. Dena den, politizazioaren inguruko auzi hau artikuluetan zehar landuko da.

gertatu da eta bertan hauteskunderen emaitzek garrantzi handia dute. Horrela, bada, auzitegiek, komunikabideek eta politizazioak benetako eztabaida gezurtatu dute, “Alardearen egia” bere testuingurutik ateraz. Benetako arazoa desitxuratu egin da, eta horregatik hain zuzen ere, sortu da gatazka hau, inoiz sortu behar ez zena, alegia.

Tradizionalisten ustez, Alardea gauza guztien gainetik dago, sentipen bat da, definiziozina den sentipen bat: “Alardea ezin da esplikatuz” oso esaldi erabilia da tradizionalisten aldetik. Hitzek ezin dute azaldu sentipen hori, eta soilik bertakoek uler dezakete; tradizionalisten ustetan kanpoko batek ezin du sentimen hori ulertu. Izan ere, kanpokoak denak gerturatze arrazionala egiten du eta horrela ezinezkoa da Alardeen benetako esanahia konprenitzea. Alardearen definizioa egiten denean “irrazionala” eta “esplikaezina” adjetiboak sarritan azaltzen dira.

Alardea festa kolektiboa da, Irungo edo Hondarribiko Herriarena, eta gauza guztien gainetik bateratzailea. Ideologia eta klase sozialak gainditzen ditu irundar eta hondarribiar identitatearen mesederako. Horregatik da barkaezina berdinzaleek sortutako zatiketa tradizionalistentzat, orain arte jaietan izan den harmonia eta bakegiroa zalantzan jartzen baita.

Hala ere, emakumeen partaidetza eragozteko erabiltzen den argudio nagusia historia da. Alardea gertaera historiko baten gogorapena da, eta horrek, zilegi egiten du soldaduak soilik gizezkoak izatea. Alardearen baitan aldaketak gertatu direla onartzen dute, baina aldaketa horiek benetako espirtua mantendu dute; hortaz, izandako aldaketak bigarren mailakoak izan dira, Alardearen funtsa ukitu ez dutenak.

Alardeak iraganeko ezaugarriak mantentzen ditu eta era berean parte-hartze masiboa ahalbidetzen du. Tradizionalisten ustetan parte-hartzea ez da soilik desfile-lortzen, ikuslea ere parte-hartzailea da. “Espaloietatik” parte hartzen da, emakume zein gizezkoak egonik; beraz, emakumeek ere parte hartzen dute. Gainera emakumeak desfile barruan ere parte hartzen du, oso nabarmen parte hartu ere, kantineraren papera jokatzuz, alegia³.

Hauek dira argudio nagusiak emakumeen partaidetza soldadu bezala eragozteko, baina argudio hauei guztiei nolabaiteko “blindajea” ematen dien ideia gehiengoarena da. Aldaketa zilegia izango litzateke baldin eta biztanleriaren gehiengoak hala eskatuko balu. Horrela, onartezina da gutxiengo batek bere ideiak gehiengoari inposatzen saiatzea, gaur egun gertatzen ari den bezala, hain zuzen ere. Zentzu horretan, giza eskubideetan edota emakumeen eskubideetan oinarritzen

3. Kantineraren paperak izugarritzko garrantzia du Alardeetan. Alardeen garapenaren baitan eboluzioa gertatu da bere pertzepzioan. Historikoki eta Alardearen hastapenetan kantinera tabernaria antzeko emakumea zen eta nahiko balorazio ezkorra zuen, baina urteak pasa ahala prestigio handiko eta ohorezko postua izatera ailegatu da.

diren argudioak ez dira bidezkoak. Tradizionalisten aburuz, giza eskubide eta emakumearen eskubideen argudioak aitzakiak baino ez dira jaia suntsitu eta politizatzeko. Donostiako *Salbe* edota Iruñeko *Riau Riau* ezagunak ere estrategia horren adibideak izango lirake.

2. Jarrera berdinzalea. Talde honen diskurtsoaren gunea giza eskubideak eta emakumeen eskubideak dira. Alardea, gauza guztien gainetik jai bat da, eta horregatik hain zuzen ere, parte-hartzailea behar du izan. Gaur egun jaia ez da guztiz parte-hartzailea, emakumea ikusle izatera mugatuta baitago. Ikuspegi honen arabera ezinezkoa da biztanleriaren erdia behartuta izatea jaia espaloian ikustera. Era berean, gertakari historikoa ez da ukatzen, ezta gogorapen militarra izatea, baina hauen ustez, eboluzioa ezaugarri horien gainetik dago eta behar-beharrezkoa da egokitze-prozesua martxan jartzea. Alardea gaur egun ospakizun herritarra da. Are gehiago, identitate-zeinu garrantzitsuena bada, definizioz ezin da baztertzaila izan.

Gaur egun, emakumeak gizartearen arlo guztietan daude, polizia edota militar estamentuetan ere (armak erabiltzen diren lanbideetan); emakumearen parte-hartzea Alardean eboluzio normaltzat jotzen da, eta tradizionalisten jarrera, aldiz, anakronikotzat. Berdinzaleek diotenez giza eskubideak ez dira bozkutzen eta, beraz, gehiengoaren tesiak ez du inongo aplikaziorik auzi honi dagokionez. Erreferendumaren soluzioa baztertzen da, eta aldarrikapenaren defendatzaileen kopuruari ez zaio garrantzirik ematen, emakume batek aldarrikapen hau egitea nahikoa izango litzateke eskubide honen egikaritzea martxan jartzeko. Zentzu horretan, auzitegietara jotzea guztiz koherentea da, horren bidez, eskubideen egikaritzea berma baitaiteke.

Diskurtso berdinzalearen baitan aurrerakoitasuna da nagusi. Emakumeen parte-hartzearen defentsa ageri da, baina horrez gain beste aldarrikapen batzuk ere agertzen dira: Alardearen demokratizazioa, errotazioa eliteko postuetan eta abar. Izan ere, ikuspegi honen arabera, Alardean irundar eta hondarribiar gizartearen ezberdintasunak agertzen dira. Horrela, festa benetan herritarra eta parte-hartzailea izan dadin aldaketa horiek beharrezkoak dira. Zentzu horretan, berdinzaleen aburuz emakumea ez onartzearen aitzakiaren azpian pribilegioak mantentzearen aldeko apostua ere ezkutatuko litzateke. Tradizionalistek defendatzen duten harmonia eta berdintasuna ez dute batere garbi ikusten jarrera honen defendatzaileek.

Berdinzaleen esanetan, Alardea maite dute, eta horregatik hain zuzen ere egokitu nahi dute errealtate sozial berrietara. Horrela bada, ez dute onartzen tradizionalistek egozten dieten “kanpotar” adjektiboa. Irungoak eta Hondarribikoak dira, baina Alardea ulertzeko beste era bat dute. Are gehiago, Alardearen etorkizuna bermatzeko behar-beharrezkoa ikusten dute honelako aldaketak egitea.

Politizazioari dagokionez, EAJk bultzatutakoa da azpimarratzen dutena, hauteskunde-interesei estuki lotuta. Euren taldearen pluraltasuna azpimarratzen dute,

elementu baikortzat hartuz. Taldearen aniztasuna garrantzitsua da, bertan militantzia ezberdinak dituzten pertsonak biltzen dira eta ideia baten alde jarrera eta ikuspegi ideologiko ezberdinak batu egiten dira.

Bidasotar batek, eskualdetik at dagoenean eta nongoa den galdetzen zaionean, gehienetan badaki zein izango den bestearen erantzuna Irun edo Hondarribikoa dela esan ostean. Izan ere, azken urte hauetan bi herri horiek ezagunak egin badira —zoritxarrez— Alardeen auziaren ondorioz izan da. Adibide honek garbi erakusten du, kanpora begira, Alardea nolabaiteko nortasun-agiri bilakatu dela. Baina, barrura begira ere, barne-taldeak zehazten ditu erabat: Alardearen inguruko gatazkaren arabera jarrerak definitzen baitu bakoitzaren identitatea eta talde jakin bateko partaide izatea. Oso zabaldua dago ikuspegi tradizionalaren aldekoa herrikoa eta emakumearen parte-hartzearen aldekoa kanpotarra delako topikoa. Liburu honetan zehar garrantzi handia emango zaio aspektu identitario honi, izenburuak garbi uzten duen bezala. Horrela, bada, *herria* eta *hiria* hitzekin “jolastea” erabaki dugu. Kasu honetan kontzeptu hauek ez dute zentzu geografikoa hartzen (landatar/kaletar), baizik eta politiko eta soziologikoa: Herria, komunitate itxia eta Hiria eskubide demokratikoen eremu soziala. Kontzeptuon dualitate hau aspaldiko kontua da eta faktore etniko-kultural (*gemeinschaft*) eta politiko-juridikoak (*gesellschaft*) bereizteko (Tonnie, 1947) erabili izan da soziologian zein politologian⁴. Gaur egun ere, sarritan erabiltzen diren analisi-kategoriak dira hauek.

Herria hitza gizarte osoaren zatitzat hartzen da eta ez bere osotasunean. Horrela, bada, komunitate jakin batek eskusiboki gizartearen definizioa hartzen du bere burua definitzeko eta gainerakoak *herritik* at gelditzen dira; taldeko ezaugarriak kritikatzeko dituen ez da herrikoa, nahiz eta herrian jaio eta bizi. Hauxe da hain zuzen ere, Bidasoan gertatzen ari dena: tradizionalistek egindako definizioaren arabera, soilik beraiek dira bertakoak; emakumearen parte-hartzearen aldekoak, aldiz, kanpokoak dira, ez baitute irundar edo hondarribiarren sentipenik ondo ulertzen. Horren arabera, bakarrik Alarde tradizionalaren aldekoak dira Bidasoako *herria* osatzen dutenak. Zentzu horretan, adibide oso esanguratsuak topa daitezke: tradizionalisten Alardearen izena Irungo Herriko Alardea da; Alarde tradizionalaren jeneralak 2000. urteko Alardea ospatu ostean esandako hitzak ere nahiko adierazgarriak dira: «Hauxe da Irungo Herriak nahi duen Alardea» (*El Mundo*, 2000/07/01, “Vivir Guipúzcoa”, 3. or.). Tradizionalisten aldeko web orrialde batek ere garbi erakusten du jarrera hau: «El único Alarde discriminatorio y restringido sería aquél que, a expensas del Pueblo y poniéndonos a las mujeres como pretexto, estaría constituido por un grupo minoritario unido en torno a una determinada ideología y constituido por una mayoría foránea en busca de sus propias reivindicaciones

4. Euskaraz, *ciudadanía/citoyenneté/citizenship* hitzaren ordaina *herritartasuna* izaten da. Gure testuan, eta nahasketarik sor ez dadin, *hiritartasuna* erabiliko dugu, horren bidez eskubide demokratikoetan oinarritzen den gizarte-hitza azpimarratu nahi baitugu. Gainera, horren bidez ondo bereizten dira *herria* eta *hiria* kontzeptuen esanahia.

políticas» (www.club2.telepolis.com/alardeirun). Azken esaldi horrek argi erakusten du aurreko lerroetan esandakoa: alde batetik, Herria soilik tradizionalistek osatuko lukete; eta bestetik, Alarde berdinzalearen alde egiten dutenen gehien-goia kanpokoa izango litzateke. Horrela izanik, berdinzaleak ez dira herrikoak eta beraz “besteak” dira; eta tradizionalistek definitutako komunitatetik at gelditzen dira, alegia. Tradizionalisten arabera, berdinzaleak hiritarrak izan daitezke, baina ez herritarrak.

Gai honi dagokionez, ezin da ahaztu gizarte demokratikoetan hiritarra dela bizitza politiko eta sozialaren subjektua. Horrela izanik, banakoa da eskubide eta askatasun demokratikoen jabe; banakoari dagozkio eskubide hauek, ez datozkio komunitate jakin bateko partaide izateagatik. Hiritartasunaren printzipioak askatasuna eta berdintasuna dira eta horien bidez ezartzen da modernitatearen gizarte-hitzarmena. Edozein talde-pertenentziaren gainetik kokatzen dira banakoaren hiritartasun-eskubideak. Beraz, eta aurreko pasartean ikusi den bezala, Bidasoan printzipio horiek zalantzan jartzen ari dira: berdintasunaren eta banakoaren aurrean tradizioa eta komunitatea (herria) nagusitzen ari dira.

Dinamika horren ondorioz komunitateak bere imaginarioa herrian irudikatzen du. Era horretan, identitate kolektibo jakin bat naturalizatu egiten da eta bere eraikuntza soziala ezkututzen da (Iacono, 2000:108). Horrela izanik, komunitatea (herria) ente naturalizat hartzen da. Ondorioz, bere existentzia eta izaera ez dira zalantzan jartzen, ez da inongo argudiorik behar. Izan ere, berez eta beti existitu egin den entzetat jotzen da. Horren arabera, komunitate barruan ezin da ezer eztabaidatu, gauzak ez dira era arrazionalen planteatzen, azken hori ezinezkoa baita. Sinesmen eta pasioen mundua da nagusitzen dena. Komunitatearen identitateari kritika eginez gero, guztion kontra eginiko erasotzat ulertzen du taldeak. Memento horretan pasioan oinarritutako autodefentsa-dinamika sortzea ez da harritzekoa izaten gehienetan. Eraso horren kontra, talde barruan, buruzagitza hartzen duenak onspen sozial handia izango du. Zentzu horretan, eta Capella-k ondo adierazten duen bezala, pasiotik fanatismora urrats txikia dago (Capella, 2000:76).

Alardeei dagokienez, faktore hauek oso era gordinean azaldu dira aspaldi honetan, denon buruetan baitaude azken urteetako gertakariak. Alardea eraikuntza sozialik gabeko ente natural balitz bezala ulertzen da. Horren arabera, eztabaidarako gunerik ez dago. Horrela izanik, komunitatean harremanak era naturalean gertatzen dira; izan ere, harreman horiek era autokontzientean gertatzen direnean, komunitatea bera jartzen da zalantzan (Bauman, 2003). Horri lotuta, Alardea errito irrazionalizat jotzen dute tradizionalistek, esplikaezina, sentipenen eremuan kokatzen dena. Beraz, gerturatze arrazionala egitea ezinezkoa da; eta noski, Alardea haiek bezala bizi —sentitzen— ez duenak ez du inoiz sentipen hori ulertuko. Ideia hau islatzen duten adierazpenak oso ohikoak izaten dira Bidasoan. Irungo Alarde tradizionalaren jeneralak esandako hitz hauek oso esanguratsuak dira zentzu horretan: «Alardea maitasuna bezalakoa da, ezin da esplikatu, hitz egokirik ezin da

topatu» (*El Mundo*, 2002/05/27, Gipuzkoa, 20. or.). Edota Hondarribiko alkateak esandako beste hauek: «Bidasoatik at auzi hau ulertzea oso zaila da» (*El Diario Vasco*, 2000/09/09, 7. or.). Adibideok garbi erakusten dute naturalizazio honek eztabaida errotik moztea duela helburutzat. Era berean, Alardea modernizazio-prozesutik at egongo balitz bezala kontsideratzen da baina hori ezinezkoa da gaur egun. Are gehiago, gezurra da, Alardea, edozein errito folkloriko eta identitario bezala, eraikuntza soziala da. Beraz, eman nahi zaion blindaje diskurtsiboa onartezina da.

Komunitatea identitate kolektibo jakin batean oinarritzen da. Komunitatearen definizioa era negatiboan eraikitzen da, *gu*-a bestearen ezinikusian oinarritzen da. Horrela, komunitatearekiko pertenezia bazterkeriari lotuta doa (Hobsbawn, 2000; Iacono, 2000; Doménech, 2002). Prozesu honen bidez bestea ezezagun ere bihurtzen da. Talde propioan daudenak dira bakarrik berezko ezaugarriak defendatzen dituztenak (Capella, 2000). Besteaz dakigun gauza bakarra da arerioa dela. Gutarren eta besteen artean ez dago tarteko aukerarik. Tarteko aukeran kokatzen dena automatikoki arerio bilakatzen da. Zentzu horretan, komunitatearen barruan, etengabeko zaintza da nagusi; kanpoko arerioei aurre egiteko, baina sor daitekeen barne-disidentzia ere kontrolpean izateko (Bauman, 2003:24). Erabateko leialtasuna eskatzen da talde barruan, norbait ezaugarriren bat zalantzan jartzen ausartzen bada traidoretzat joko da, harreman sozialetan gerta daitekeen fenomenorik mingarrienera baten biktima izango da, alegia. Gainera prozesu honek ez du talde barruko definiziorik behar, kanpora begira ezartzen den muga da definizioa. Ikuspegi honek inkomunikazioa ahalbidetzen du eta talde ezberdinen artean ezar daitezkeen zubiak suntsitu egiten ditu erabat. Horren bidez, taldearen garbitasuna eta bertan diren botere-harremanen egonkortzea nahi da. Azken helburua taldearen fosilizazioa ahalbidetzea izango litzateke.

Dinamika hauek, azken urteetan, asko gertatu dira Bidasoan. Horrela, bada, tradizionalisten barruan ez da tarteko jarrerarik inoiz onartu, garbitasuna da soilik zilegi. Horren bidez, tradizionalistek herria “bahitu” dute, eta irundarra edo hondarribiarra izateko alde aurretik markatutako eta ezarritako baldintzak onartu behar dira. Horiek onartzen ez dituen, hots, berdinzalea, kanpoko da, nahiz eta Bidasoan jaio eta bizi. Era horretan, Alardeen arabera pertenezia eta identitatea nagusitu da Irun zein Hondarribian. Zentzu horretan, oso esanguratsua izan daiteke neuri gertatutako anekdota bat. Bilbon, Irunen bizi den kargu politikoa batekin —ez da maila lokalean aritzen— topo egin nuen. Berak, nigana hurbilduta, ea irundarra nintzen galdetu zidan. Nik baietz erantzun nion. Eta hurrengo galdera izan zen ea zer konpainiatan ateratzen nintzen Alardean. Alarde berdinzalean ateratzen nintzela jakitean elkarrizketa bukatu egin zen. Bitxia da nola hasi zen elkarrizketa. Izan ere, pertsona horrek ez zidan galdetu zer auzo edota kaletan bizi nintzen, ni herrian kokatzeko nire Alardeko konpainiaren berri jakin nahi zuen. Bere ondorioa argia izango zen: ni Irunen bizi nintzen, baina ez nintzen irundarra, ez gutxienez Irun Herrikoa. Guretzat, liburu honen egileontzat, aldiz, Alardearen inguruko jarrerak

ez digu informazio interesgarri askorik ematen, pertsona bat irundarra edo hondarribiarra denean, Irungoa edo Hondarribikoa da eta kitto.

Gure herriek aldaketei atea ireki behar dizkiete, beldurrik gabe. Izan ere, Alardearen fosilizazioak ez du batere onurarik ekarriko. Garai berrietara egokitu behar da Alardea; eta horregatik hain zuzen ere, berdintasunean oinarritu behar da. Azken finean, guk amesten dugun Alardea hiritartasunean oinarritzen da, pertsona guztien duintasunean; eta ez tradizio eta menpeko harreman desorekatuetan. Gaur egun, edozein tradizio hiritartasunaren unibertsaltasuna izan behar du aurrebaldintza; beraz, Alardeak guztiontzako jai ireki bat izan behar du, salbuespenik gabe. Liburu honen helburua egitasmo horren baitan kokatzen da.

Zentzu horretan, argi utzi nahi dugu hasieratik, liburu hau ez dela aseptikoa, neutrala edota objektiboa. Horrelakorik ez baita existitzen; gizakiak garen heinean, denok dugu ideologia zehatz eta subjektibo bat, objektibotasuna objektuei dagokie eta ez subjektuei. Eta horixe da, hain zuzen ere, honen bidez salatu nahi duguna: sarritan neutraltasun baten atzean manipulazioa eta errealtatea ikusteko jarrera zehatza ezkutatzen da. Alardea lantzeko mementoan, askotan gerturatze maltzur eta oker hori erabili da; eta askotan ere, inkontzienteki izan daitekeen arren, interpretazio horiek onartu dira “gauza natural eta sakratuak” izango balira bezala. Gure lana subjektiboa da, denak bezala. Baina zintzotasunez jokatu nahi dugu. Horrela, bada, jarrera militantea onartu eta aldarrikatu egiten dugu, geure burua kritikoki ikusten dugularik. Lan honen bidez, irakurlea suspertu nahi dugu; ikuspegi ezberdinen arteko elkarrizketa bultzatu nahi da, gai honen inguruan dauden jarrerak lehian jar daitezten.

Aipatutako jarrera militanteak eragina du zenbait artikuluren estiloan. Horrela izanik, artikulua batzuetan estilo zientifikoa erabiltzen den bitartean, beste batzuetan estilo ez-akademikoa azaltzen da. Autoreen izaera eta ikuspuntua errespetatzeko estilo horiek onartu eta hobetsi egin dira liburuaren baitan.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu liburu honetan lan eta parte hartu duten pertsoneri. Argazkiak eskaini dizkiguten lagun guztiei eta, bereziki, Anjel Lertxundiri, liburuaren epilogoan egiten duen begirada eta ekarpenagatik.

BIBLIOGRAFIA

- Bauman, Z. (2001): *En busca de la política*, FCE, Buenos Aires.
- , (2003): *Comunidad*, Siglo Veintiuno, Madril.
- Capella, J. R. (2000): “Las raíces culturales comunitarias”, in H. Silveira (arg.), *Identidades comunitarias y democracia*, Trotta, Madril.
- Doménech, A. (2002): “Individuo, comunidad, ciudadanía”, in J. Rubio; J. M. Rosales eta M. Toscano (arg.), *Retos pendientes en ética y política*, Trotta, Madril.
- Hobsbawan, E. (2000): “Identidad”, in H. Silveira (arg.), *Identidades comunitarias y democracia*, Trotta, Madril.
- Iacono, A. M. (2000): “Raza, nación, pueblo: Caras ocultas del universalismo”, in H. Silveira (arg.), *Identidades comunitarias y democracia*, Trotta, Madril.
- Rubio, J. (2000): “¿Derechos liberales o derechos humanos?”, in J. Rubio; J. M. Rosales, M. Toscano, *Ciudadanía, nacionalismo y derechos humanos*, Trotta, Madril.
- Tonnies, F. (1947): *Comunidad y Sociedad*, Losada, Buenos Aires.